



## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2013ko martxoaren 14ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Ebaluaketa eta Segimendua. Tokiko Jasangarritasun Adierazleen Kalkulua; 1.2. Tokiko Ekintza Planen Berrikuspena; 1.3. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari dagokion zerbitzuaren bideragarritasun azterketa; 1.4. Eskolako Agenda 21; 1.5. ISO 14064 Lan-taldea; 1.6. Biotalde; 1.7. Ibaiertzak berreskuratzeko proiektua; 1.8. Lanbideko Enplegu Berdea; 1.9 Emisio fokuen inbentarioa; 1.10. 2013ko 1. aparteko dirusaria; 1.11. 2013ko hitzarmena eta kuotak; 1.12. BFAko Ingurumen Sailarekin bilera diru-laguntzen onuradunen inguruan; 1.13. Interbentzio publikoak; 1.14. Udalsarea 21eko Batzorde Teknikoa; 1.15. BFAko jardunaldia Zarata kudeatzeko tresnaren ingurukoa eta TA21arekin lotua; 1.16. Iberdrolarekin bilera argi mozketak direla eta.
- **TA 21. Eskualdeko Ekintza Plana:** Tokiko Plan batzuetan egindako aldaketetatik jaso programa berria aurkezten da: Tokiko Agenda 21eko prozesuetan zarataren kudeaketaren barneratzea. Printzipioz, maiatzeko batzordean onartuko da, udaletako Ekintza Plan guztiak ontzat ematen direnean, udalek azken uneko ekarpen berriak aurkeztu ahal izateko.
- **Berrerabilpenerako edukiontzientzat BFArekin Hitzarmen Proposamena:** hitzarmenaren proposamena ontzat eman da eta erabakitzeke dauden beste gaiak adosten saiatzera. 25 urterako iraunaldia dela eta, egokiago ikusten da 5 urteko iraunaldia 25 urtera luza litekeena edo antzeko beste formula. Zeberio zerbitzura erantsi da hitzarmenaren baldintzetan.
- **Nerbioi-Ibaizabaleko ikastetxetan mugikortasun jasangarria sustatzeko ekintzak: Segurtasun Neurrien Azterketa.** Leberrek aurkeztutako proposamena onartu eta 18.000 euroko (BEZ kanpo) kontratua sinatu ondoren lanak hasi dira.
- **Nerbioi-Ibaizabaleko ikastetxetan mugikortasun jasangarria sustatzeko proiektu pilotua: Eskola Bidea:** Bitakak aurkeztutako proposamena onartu eta 18.000 euroko (BEZ kanpo) kontratua sinatu ondoren lanak hasi dira.
- **Batzordearen hurrengo bilerak:** apirilak 18 eta maiatzak 16. (Ondoren, maiatzak 9ra aldatu da lehen bilera eta ekainera bigarrena).